


A2.2 MAILA

BERRITSUA ALA ISILA ZARA?

Aurkezpena

Galdera horren inguruan ariketa hauek egingo dituzu:

- Bideo bat ikusi eta nork zer esan duen identifikatu.
- Erreportajea irakurri eta falta diren aditzak jarri.
- Taldeka jarri eta gaiari buruzko iritziak komentatu.



A2.2 MAILA

Bideo bat ikusi eta nork zer esan duen identifikatu.

	ANE	HODEI	DALA
Txikitatik berritsua naizela esan didate			
Ezin dut liburutegian ikasi			
Batzuetan berritsua naiz baina gehienetan isila			
Nire anaia isila da eta ni oso berritsua			
Isiltasuna garrantzitsua da kontzentratzeko			
Berritsuen eta isilen arteko oreka dago familietan			
Bakoitzaren ezaugarriak baloratu behar dira			

A2.2 MAILA

Irakurri elkarrizketa

Orain irakurri elkarrizketa osoa .

Liburutegira ikastera joan zara, eta ondokoa ez da isiltzen. Galderak egiten dizkizu, eta zu ezin zara kontzentratu; ezin duzu ikasi. Isiltasuna behar duzu, baina ez diozu ezer esaten. Berak hor jarraitzen du. “ Zer berritsua den!”, pentsatzen duzu. Hurrengoan zure logelan geratuko zara, bakarrik eta isilik, ikasten.

Familia-bazkaria duzu gaur. Badakizu zer gertatuko zen: denak elkartuko zarete eta, beti bezala, zure anaia ez da isilduko. Berak dena kontatuko du, berea eta zurea. Zuk, bitartean, sardexka ahoan sartuko duzu eta entzun egingo diozu, bazkari gehienetan bezala.

Berritsuak eta isilak. Pertsona guztien balantza alde batera edo bestera joaten da. Gutxi dira berritsu eta isil neurri berean, batzuetan isilak eta besteetan berritsuak, baina horrelakoak ere badaude.

Ikasten, lanean, familian edo bizitzan, hainbat motatako jendea ezagutzen dugu, eta egoera horien inguruan hitz egin dugu Anerekin, Hodeirekin eta Dalarekin. Donostian elkartu gara beraiekin eta hiruren iritziak ere badaude.

FAMILIAN

Familiarekin elkartzen garenean, normalean, kide bakoitzak bere papera betetzen du. Batzuek bazkari osoa hitz eta pitz pasatzen dute, eta beste batzuek, berriz, oso gutxitan irekitzen dute ahoa. Dala Basurkok lehenengo taldean kokatzen du bere burua: “ Nire familian argi dago, ni berritsuena naiz eta nire neba isila da”. Familia guztietan oreka bat egoten da, “ denek batera hitz egiten badute, zoramena izango da”, esan digu.

Dalaren sendia atzerritarra da, eta ez dute denbora luzean elkar ikusten. Biltzen diren bakoitzean, gauza bera gertatzen da: “ Ni hizketan hasten naiz eta nebari hitz egiten uzteko esaten didate, baina bere erantzuna oso laburra da: bai ala ez. Nik hutsune horiek betetzen ditut”.

LANEAN

Hodei Gimenez ikus-entzunezko komunikazioa ikasten ari da, eta praktikak egiten ditu enpresa batean. Bere iritziak, lan-motaren arabera, batzuetan hobe da isiltasunean aritzea eta, beste batzuetan, norbaiten laguntza jasotzea, baina ikasteko oso argi du: “ Ezin dut liburutegian ikasi. Nahiago dut nire logelako isiltasunean”.

Lan egiteko edo ikasteko, kontzentrazioa garrantzitsua da askorentzat, eta Hodeirentzat ere bai: “ Isiltasuna behar dut kontzentratzeko eta haria ez galtzeko; bestela ezinezkoa da”. Isilen taldean kokatu du bere burua: “ Momentu batzuetan berritsua naiz, baina gehienetan isila; ez daukat zalantzarik”.

A2.2 MAILA

PERTSONAK

Ane Fernandez neska berritsua da, txiki-txikitatik hori esan diote eta berak onartu egiten du. Berari pertsoneri buruz galdetu diogu: nolako jendea duen inguruan, zer nahiago duen eta zertarako...

Aneren ustez, hobe izaten da egoera bakoitzean pertsona-mota bat edukitzea: " Adibidez, zerbait kontatu nahi dugunean edo lasai egoteko gogoia izaten dugunean, pertsona isilak agian gehiago lagunduko digu. Beste batzuetan, aldiz, norbaitekin hitz egin nahi dugunean edo elkarrizketa bat izan, hobe izaten da pertsona hiztuna izatea".

Inguruko jendearen izaerak gurea baldintzatzen du, eta bakoitzarena estimatzen ikasi behar dugu. Denok ez dugu hori egiteko gaitasunik, baina Anek bai, badauka: " Era guztietako jendea edukitzen dut alboan, eta ikasi egiten da bakoitzaren ezaugarriak estimatzen".

Eta zuk, nolako jendea estimatzen duzu? Berritsua ala isila? Nor da gogaikarriagoa zuretzat? Eta zu, berritsua zara... ala isila?

Begiratu gabe, jarri beheko zatian falta diren aditz laguntzaileak.

Liburutegira ikastera joan zara eta ondokoa ez_____ isiltzen. Galderak egiten dizkizu eta zu ezin_____ kontzentratu, ezin_____ ikasi. Isiltasuna behar duzu, baina ez_____ ezer esaten. Berak hor jarraitzen_____. " Zer berritsua den!", pentsatzen_____. Hurrengoan zure logelan geratuko_____, bakarrik eta isilik, ikasten.

Familia bazkaria duzu gaur. Badakizu zer gertatuko den: denak elkartuko zarete eta, beti bezala, zure anaia ez_____ isilduko. Berak dena kontatuko_____, berea eta zurea. Zuk, bitartean, sardexka ahoan sartuko duzu eta hari entzungo_____, bazkari gehienetan bezala.

Berritsuak ala isilak. Pertsona guztien balantza alde batera edo bestera joaten_____. Gutxi dira berritsu eta isil neurri berean, batzuetan isilak eta besteetan berritsuak, baina hauek ere ba_____.

A2.2 MAILA

Eta zu ?

Jarri taldean eta komentatu puntu hauek zure lagunekin:



- Zu nolakoa zara, isila ala berritsua?
- Berdina zara egoera eta leku guztietan?
- Nolakoa da zure inguruko jendea?
- Nolako jendearekin moldatzen zara hobeto?

A2.2 MAILA

BIDEOAREN TRANSKRIPZIOA

Ane: Nik esango nuke, ni pertsona berritsua naizela, bai, bai, bai, bai. Bai egia esan betidanik esan izan didate berritsua ikastolan eta abar eta txiki-txikitatik bai, hiztuna.

Hodei: Badaukat batzuetan berritsua izateko momentuak, baina batez ere isila.

Dala: Ni berritsuen artean egongo nintzateke, adibidez nire anaia isila delako.

FAMILIAN

Dala: Ba nire familian nahiko argi dagoela uste det. Nik uste dut nire familian adibidez ni naizela berritsuena, eta agian nire anaia isila. Askenean familia bakoitzean oreka bat egongo da seguru askiena: berritsuak eta isilak. Askenean, denek hitz egiten baldin badute, zoramna izango da. Orduan, nik uste dut asken finean familia bakoitzak, bakoitzak bere papera izango duela, oreka bat izateko asken finean.

Adibidez, familia artean, nire familia atzerritarra da eta denbora luzean ikusi gabe egon eta gero, beti juntatzen garenean, ni hasten naiz hitz egiten eta hasten naiz kontaktzen egindako guztia; zer gertatu den; galderak egiten... Eta beti esaten dute: "Zu isildu eta utzi zure anaiari hitz egiten!". Eta azkenean, nire anaiak erantzun bakarra egingo duena izango da bai ala ez, eta ez du gehiago kontaktzen. Orduan, azkenean, hutsune horiek nik betetzen ditut.

LANEAN

Hodei: Desberdindu behar da lana egitea edo ikastea, ez? Eta lana (lan) barruan ere, lana (lan) motaren arabera, batzuetan hobeto da isilik egotea eta beste batzuetan, beste norbaiten laguntza izatea. Baina ikasterakoan bai. Nik ezin dut, adibidez, liburutegi batean edo horrelako batean ikasi. Nik hobeto nire etxean ikasi, nire gelan eta oso lasai.

Isiltasuna ona da, batez ere, kontzentratzerakoan eta haria ez galtzeko ere bai. Azkenean baldin badaukazu norbait hitz egiten, zaude kontzentratua eta despistatzen zaitu eta galdu egiten zara.

PERTSONA

Ane: Nik uste dut egoera bakoitzean pertsona isila edo berritsua gure alboan izatea gehiago edo gutxiago komeni dela, ez? Agian, ez dakit, zerbait kontatu nahi duzunean, igual pertsona isil bat-edo alboan izateak gehiago laguntzen dizu. Aldiz ba beste batzuetan, norbaitekin hitz egin nahi duzunean edo elkarrizketa bat edukitzea interesatzen zaizunean, ba pertsona hiztun batek edo berritsu batek ba hobeto laguntzen dizu.

Lasaitasuna behar dugunean, lasai egon nahi dugun horretan, gure pentsamenduetan pertsona isila alboan izatea, ba hori, ona izaten da. Eta aldiz, bueno ba berritsua igual animosoago gaudenean, edo, ez dakit, igual sozialki beste egoera batean gaudenean, elkarrizketa bat izan nahi dugunean, berritsua alboan izatea, gustagarriagoa da.

Ba nire inguruan denetarik: pertsona isilak, pertsona berritsuak, batzuetan isilik egoten direnak... Pixka bat era guztietako jendea daukat alboan, eta esan behar dut ikasten dela

A2.2 MAILA

bakoitzaren ezaugarri horiek ere apreziatzen. Bakoitzak, pertsona bakoitzak berea du, eta bai isiltasunezko momentuak eta bai hiztunagoak diren momentuak apreziatzen direla ere jende honekin.

ERANTZUNAK

Bideoa ikusi eta nork esan duen identifikatu.

- | | |
|--|--------------|
| - Txikitatik berritsua naizela esan didate | ANE |
| - Ezin dut liburutegian ikasi | HODEI |
| - Batzuetan berritsua naiz baina gehienetan isila | HODEI |
| - Nire anaia isila da eta ni oso berritsua | DALA |
| - Isiltasuna garrantzitsua da kontzentratzeko | HODEI |
| - Berritsuen eta isilen arteko oreka dago familietan | DALA |
| - Bakoitzaren ezaugarriak baloratu behar dira | ANE |

Erreportajea irakurri eta falta diren aditzak jarri.

Liburutegira ikastera joan zara eta ondokoa ez **da** isiltzen. Galderak egiten dizkizu eta zu ezin **zara** kontzentratu, ezin **duzu** ikasi. Isiltasuna behar duzu, baina ez **diozu** ezer esaten. Berak hor jarraitzen **du**. “ Zer berritsua den!”, pentsatzen **duzu**. Hurrengoan zure logelan geratuko **zara**, bakarrik eta isilik, ikasten.

Familia bazkaria duzu gaur. Badakizu zer gertatuko den; denak elkartuko zarete eta, beti bezala, zure anaia ez **da** isilduko. Berak dena kontatuko **du**, berea eta zurea. Zuk, bitartean, sardexka ahoan sartuko duzu eta hari entzungo **diozu**, bazkari gehienetan bezala. Berritsuak eta isilak. Pertsona guztien balantza alde batera edo bestera joaten **da**. Gutxi dira berritsu eta isil neurri batean, batzuetan isilak eta besteetan berritsuak, baina hauek ere **badaude**.